

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Sailsa**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2223/2019 FORU AGINDUA, uztailaren 18koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuaren babespean aurkeztutako diru-laguntza eskabideak ebatzi dituena. Foru dekretu horren bidez onetsi egiten dira 2019. urtean zehar Bizkaiko kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia (2019ko apirilaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 70 zenbakia).**

2019ko apirilaren 10ean Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019. urtean Bizkaiko kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko diru-laguntzen deialdia argitaratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuaren bidez.

Foru dekretu arautzailean xedatutakoarekin bat etorritik, aurkeztutako eskabideak maiatzaren 14ko 1542/2019 Euskara eta Kulturako Foru Aginduaren bidez eraturako epaimahai kalifikatzaileak ebaluatu zituen eta eskabide horiei buruzko ebazpen proposamena aurkeztu zion Saileko titularrari, 2019ko ekainaren 11ko aktan agertzen denaren arabera.

Deialdi honetan diru-laguntzak emateko aurrekontu-muga apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuko 19. oinarrian —Aurrekontu-partida— dago jasota:

«Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga jarraian azaltzen diren zenbatekoek zehatuzko dute:

Hogeita hamar mila euro (30.000 euro), 2019ko ekitaldiko 0404 G/336107/45100/0000-2007/0157 aurrekontu-partidaren kargura.»

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Jaurpide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) eta 67.1. artikuluek, eta Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak eta haiekin bat datozen gainerako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, honako hau,

**XEDATZEN DUT:**

*Lehenengoa:* Onestea foru agindu honen I. eranskinean jasotzen diren diru-laguntza eskaerak, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuaren babespean.

*Bigarrena:* Ezestea foru agindu honen II. eranskinean jasotzen diren diru-laguntza eskabideak, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuaren babespean.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuko 12.4. oinarrian xedatutakoa betetzeko, ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

*Laugarrena:* Agindua ematea Kultura Ondarearen Zerbitzuari, interesdunei behar den moduan komunika diezaien deialdi honen ebazpena, eta hala betetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 33/2019 Foru Dekretuko 12.4 oinarria.



*Bosgarrena:* Administrazio bidea agortzen duen foru agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andreari, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko (1) epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, aipatu den modu berean zenbatzen hasiko den bi (2) hilabeteko epean.

Bilbon, 2019ko uztailaren 18an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA



I. ERANSKINA / ANEXO I  
**DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN PROIEKTUAK / PROYECTOS SUBVENCIONADOS**

IFZ NIF	Entitatea Entidad	Proiektua Proyecto	Aurrekontu araztua Presupuesto depurado (€)	Puntuak Puntos	Emandako zerbatekoa Importe concedido (€)
G48914501	Asociación de mujeres « IZAERA » de Deusto-San Ignacio	La Mujer en la Muerte	15.900,00	85,00	9.142,50
G95223046	Gernikako Marijesiak Elkartea	Marijesiak 4:00 XXI. Mendean	28.556,00	70,00	9.994,60
G48113153	Asociación Guerediaga de Durango	Hiriko lanbide zaharrak	18.000,00	70,00	6.300,00
G48941272	Fundación Elai Alai	Bizkaiko Dantzak. Reforma y adaptación de la web 2019 www.dantzak.com	8.000,00	70,00	2.800,00
GUZTIRAKO KOPURUA / TOTAL					28.237,10

**II. ERANSKINA / ANEXO II  
EZESPENAK / DESESTIMACIONES**

IFZ NIF	Enitatea Entidad	Proiektua Proyecto	Puntuak Puntos	Zergatia Motivo
B95647202	Luanma Films, S.L.	«Dig up the Hatchet»	—	Ezetsi egin da, eskaitzailea ez baitu bete 33/2019 Foru Dekretuaren 2.1. oinarrian dagoen baldintza onuraduna izateko. Se desestima al no reunir la solicitante la condición de entidad beneficiaria según lo establecido en la base 2.1 del Decreto Foral 33/2019.
G48941272	Fundación Elai Alai	Publicación de una web de instrumentos musicales	55,00	Ezetsi egin da eskabidea, ez baitu 33/2019 Foru Dekretuaren 9.2. oinarrian ezarritik dagoen gutxieneko puntuazioa erdietsi. Se desestima la solicitud por no haberse alcanzado la puntuación mínima establecida en la base 9.2 del Decreto Foral 33/2019.